

## **6. ETORKIZUNeko ESZENATOKIAK**

Planaren helburu kuantifikatuak zehazteari eta etxebizitza babesturako lurzorua antolatzekeo lurralde-irizpideak definitzeari, jarduera publikoaren aurreikuspenak lurraldearen arabera banatzeari eta esku hartzekeo proposamen nagusiak finkatzeari ekin baino lehen, ezinbestekoa da etorkizuneko eszenatoki batzuk proiektatzea, bai demografiaren ikuspegitik, bai lurraldearen ikuspegitik, gaur egungo joerak abiapuntutzat hartuta eta Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planaren proposamenetarako erreferentzia-marko gisa baliagarri izango direlakoan.

Demografiaren ikuspegitik, dagokion atalean adierazitakoari jarraiki, etorkizun hurbilerako aurreikusitako eszenatokian, EAEko biztanleriaren ia erabatekeo egonkortasuna ezaugarri izango duenean, etxebizitza-premiak, etxebizitza libreerak nahiz nolabaitekeo babespekeoak izango direnenak, ia erabat izango dira oro har familien tamaina txikitzearen mendekoa. Eskualde-egituretan oinarritutako banaketari dagokionez, kanpoko migrazio-mugimendurik ezean, premia horiek barnekeo joan-etorrien araberekeoak izango dira. Aurreikuspenen arabere, mugimendu horiek gaur egungoaren antzekeo joera izango dute. Egindako azterketetan (azterketa horien metodologia eta erabilitako hipotesia agiri honen beste atal batean azaldu ditugu) ateratakeo ondorioen arabere, 2000-2016 aldiari saldoa positiboa izango da, 133.000 familia berri inguru sortuko baitira.

Lurraldearen ikuspegitik, bestela ezin zitekeenez, etorkizuneko eszenatoki horiek gaur egungo egoerak baldintzatutako ditu, lehenik eta behin. Egoera horren balorazioa egin dugu eta horren ezaugarriak adierazi ditugu jada aurrekeo epigrafeetan. Izan ere, egoera hori etorkizuneko garapenek izan dezaketen bilakaerari heltzekeo oinarritzekeo euskarri da. Garapen horiek “Lurraldearen ezaugarriak – Aurreikus daitekeen garapenenaren hipotesia” izeneko planoan adierazi ditugu grafikoki.

EAEko hirien sistemak eta horien ingurune periferikeoak, baita garraio eta komunikazioen etorkizuneko oinarritzekeo sarearen osagaiak ere, osatutako dute beste oinarritzekeo lurralde-euskarria, aurreikus baitaiteke etorkizuneko hiri-garapen intentsiboekeo errepide-azpiegitura nagusiak hartzea oinarritzat.

Horrenbestez, etorkizunean izan daitekeen garapenaren inguruko hipotesi honetan eskualde-egituren artean aipatutako azpiegitura horiek gauzatzen hasten direnetik aurrera ezarriko diren harreman berrien ondorioz sortuko diren etorkizuneko garapen-esparru eta -sistemak identifikatuko dira. Etorkizuneko hiri-garapeneko esparru horietan eragingo dute, ziurrenik, etxebizitza publikorako lurzoruaren inguruko jarduera nagusiek.

Aipatutako plan horretan islatu ditugu, halaber, aurreikuspenen arabera dentsitate txikiko garapena izango duten lurralde-esparruak eta sasoikako erabilera izango duten bigarren bizitegiko etxebizitzaren eskari handia izango dutenak. Izan ere, azken horiek eragina izan dezakete eremu horietako etorkizuneko bizitegi-parkearen dimentsionatze orokorrean.

Hain zuzen ere, lurralde-esparru berri horretatik aztertu behar dira hiri-garapenaren joerak, lehen ere esan dugun bezala, oro har Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako bi konurbaziorik garrantzitsuenetako lurralde-banaketak birmoldatzea eta Gasteiz hirigunea hedatzea ezaugarri izango dituztenak.

Bi horretatik, Bizkaian, Bilbo Metropolitarrak birmoldatzearen ondorioz, biztanleriak eta hiri-garapenak La Avanzada-rantz (Leioa eta Erandioren hedapenari jarraituz aipatutako bide-ardatzaren inguruetan), Uribe Kosta korridorerantz, Getxo eta Gorniz artean, Mungiarantz, iparralderantz, eta ekialderantz Amorebieta-Etxano eta Durango-lurreta-Abadiño ingururantz hedatuko direla aurreikus daiteke.

Aipatzekoa da, haatik, badirela zenbait lurralde-esparru —barnekoak, Asua harana esate baterako, nahiz kanpokoak, Enkarterriaren mugakide diren eskualde-egiturak, Arratiako eta Aiarako Eskualde Egitura adibidez— parte-hartzaile izan daitezkeenak lurraldea berregituratzeko prozesu horretan edo prozesu horren eragina izan dezaketenak, Bilbo Metropolitarraren eremuarekin erlazio funtzional handiagoa izatea eta/edo lurzoruaren eskaintza egokia izatea ahalbidetuko luketen bide-loturak eta -egitura hobetu ondoren betiere. Horrek ondorioak izango lituzke gaur egungo eremu hartzaileetan dauden joeretan.

Enkarterriko Eskualde Egituraren kasuari helduz, badirudi lurraldea berregituratzeko prozesu hori, Kadaguako korridorea eraikitzearekin has litekeena, ahalbidetzeko, beharrezkoa dela horrekin batera ekonomia-jardueretarako lurzuaren eskaintza handiagoa izatea eta neurri eraginkorrak hartzea eskaintza hori egia bihurtu ahal izateko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagozkion aurreikuspenen arabera, eta N-I eta A-8 ardatzak oinarri hartuta, eutsi egingo zaie gaur egungo joerei, Donostia-Beterriko Eskualde Egituran eta Urola Kostako itsasertzeko zerrendan biztanleriaren pisua indartzearen eta hiri-garapen handiagoak egitearen ingurukoei. Urola Kostari dagokionez, azkenaldian Zarautzen zentratu bada ere hazkundera, aurreikuspenen arabera Orio eta Zumaian egingo dira nagusiki hiri-garapenak.

Donostialdean bide beretik jarraituko du biztanleria birbanatzeko prozesuak, azken aldiko Bidasoa Behereko (aurreikusitakoari jarraiki Irungo hiri-garapenek pisu handiagoa hartuko dute Hondarribiaren kaltetan), Oiartzun haraneko eta Donostia udalerriko hazkunderen ildotik hain justu. Zubieta ibarreko lurralde-esparrua prest egoteak lurraldea berriz orekatzea eskatuko du eta horrek eragina izango du gaur egungo joeretan, eskualde-egituraren mendebalderantz joko baitute garapen berriek.

Deba haranean, berriz, Urbina-Maltzaga eraikitzeak areagotu egingo ditu, bistan denez, aipatutako haran horretako bi eskualde-egituren arteko harremanak. Alabaina, ez dirudi horrek batetik besterako lekualdaketak eragingo dituenik, bietan ere espazio gutxi baitago erabilgarri.

Arabako lurraldean, ostera, Gasteizen hiri-dinamismoak bertako koroa periferikoan eta Gasteiz-Miranda ardatzean eragiten jarraituko du aurreikuspen guztiei jarraiki.

Oinarrizko joera orokor horiek alde batera, gainerako eskualde-egituretan barneko izaera izango dute, aurreikusi denez, lurraldea berregituratzeko joerek.